

KOSTUEN EGITURA



Atal honetan kostuak zeintzuk izango diren aipatuko dugu. Gauza bat da diru sarrerak eta beste gauza bat kostuak, diru sarrerak lortzen dugun diru totala da baina honi kostuak daudenez diru gutxiago lortzen dugu. Kostuak materiala, argindarra eta abar izan daitezke eta puntu hau lantzeko gauza bakoitzeko kostuak azalduko ditugu:

- Materiala (zakarrontzian egongo diren makinak egiteko makineria): Zakarrontzian egongo diren birringailuak zenbait materialez eginak daude, adibidez material bat plastikoa izango da eta material horiek guk erosi behar ditugu. Guztira 450€ inguru (makinako).
- Patentea: Guk gure produktua patentatu egingo dugu eta hori egitea 700€ inguru kostatuko zaigu
- Internet: Kanaletan esan dugun bezala web orrialde bat egingo dugu gure proiektua saltzeko eta horretarako interneta behar dugu. Honen prezioa bi hilabete behin 25€ izango da
- Soldata: Gure proiektua ondo joaten bada eta mozkinak badaukagu, langile bakoitzari soldata bat emango zaio. Soldata 1000€ hilabetean izango da.
- Hasierako inbertsioak: Bakoitzak diru kantitate bat jarri behar du hasierako inbertsioak egiteko. Bakoitzak 1.000€ jarriko ditu.